

Txotx... Eguraldiak nahi badu, behintzat

Urteko hozberoen baitakoa izan ohi da sagardoa

Oraindik denbora puska falta da lehenengo «txotx» oihuak entzuteko; gehiegi batzuentzat, gutxiegi oraindik ere egiteko asko duten sagardo-zaleentzat.


Sagastiak dituztenak bururik altxatu gabe ari dira urte guztian jorratutakoa batzen; sagardo-zaleak ere hasiak dira lanean urtarrilean dastatuko diren zukuek ahalik eta gorputzik eta zaporerik hoberena izan dezaten. Horretan dihardu eta jardungo du urtarrila bitartean Mikel Zapiainek.

Eguraldiak lagunduta-edo, iaz baino sagar gehiago eman dute aurten euskal sagastiek; iaz, izan

Behin negu sasoia pasatuta, eguraldi sanoak dira aipose-nak. «Goiz freskoak eta eguzkia dira egokienak sagarrondoak loratzeko eta polinizazioa egoki egiteko». Izan ere, Zapiainek azaldu duenez, euri asko eginez gero, loreak asko sufritzen du eta erleak apenas ibiltzen dira. «Erleek laguntzen dute loreen ernaltzean polena batetik bestera eramaten, eta euri asko egiten badu, ez dute horrelakorik egiten».

TEKNOLOGIARI ESKER

Uda garaiari dagokionez, beroa eta euria nahi izan ohi dituzte,



Hasiak dira sagarra txikilzen eta lehen muztioak upeleratzen. Galzen ARANBURI | ARGAZKI PRESS

ere, urria izan zen sagar uzta. Hala ere, aurten uste zuten baino gutxiago izan dela aitortu du.

Errezeloz zaindu dute sagarrondoaren tankera uda garaian. «Lehorrea zela-eta nahikoa beldur genuen. Ale txiki samarra zetorren, baina azken boladan egin duen euriarekin asko handitu da», adierazi du Zapiainek.

Hala eta guztiz ere, uda garaian ez ezik, urte osoan egiten duen giroa sagar uzta oparora izateko erabakigarria dela gogorarazi du. «Sasoi bakoitzean egiten duen eguraldiak asko markatzen du. Negu hotza egitea, adibidez, sagarrondoentzat oso ona da; batetik, zikloa erabat gelditzen delako, eta bestetik, gaitzek eta zomorroek izugarritzko pasara hartzen dutelako», jakinarazi du.

«Sasoi honetako hego haizeak kaltegarriak dira»

eta horretan, azken urteetako ur faltan, zailtasunak.

Behin sagarra batu, zanpatu eta zuku upeleratu ostean, berriz etsai nagusia ehiztarietara horren gogoko duten hego haize epela izan ohi da.

Zapiainek, ordea, teknologiaren bidez udazkeneko beroaldiei aurre egin dietela adierazi du. «Upeltegiz guztiak prestatuta ditugu hotz artifizialarekin. Muztioa dolaretik atera bezain laster, hoztu egiten dugu eta irakinak kontrolatzen ditugu. Sagardoak dituen bi irakinetan, 14-15 gradu inguruko temperatura izatea komeni da», azaldu du.

Arazo gehiago izan ohi dituzte etxean edateko-edo teknologia aurrerapenik gabe sagardoa egiten dutenek. Haiek eguraldiaren kapritxoaren baitan makurtzea beste erremediorik ez dute.